

...eta **kitto!**

765 zkia. 2011-V-27

ASTEKARIA

TOKIKOM



46.
euska
Jalgia hadi plazara!
jaja

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGUROA
preziorik onenean



ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEI.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAn
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Ander Salegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HATXUR.- Mozkor. "Bart ikusi dot zure laguna atxur galantakin".**HATZA BESUA.-** Exagerazioa. "Haren ahuan dana hatza besua".**HATZA EMON ETA BESUA HARTU.-** Agintzen zaiena baino gehiago hartzen duteni buruz esaten da. "Aspertu zittuan baztar guztiak, hatza emon eta besua hartzeko klasia zalako".

ESKUTITZAK

IRITSI DA EGUNA

Gizon bat eta emakume bat kaleko banku batean eserita, plazan dagoen jendetzari begira daude.

- Ikusten duzu neska hori? -esaten dio gizonak emakumeari, eskuarekin gazte bat seinalatuz. Enpresa batean zebilen lanean eta, krisiak jota, itxi egin behar izan zuten, langile guztiak kalera botata. Diru gabe geratu zen, hipoteka ordaindu ezinik. Kale gorrian bizi zen, lanposturik gabe, baina hipoteka ordaintzen jarraitu behar zuen. Gurasoen etxera itzuli zen orduan, baina hauei pentsioa nabarmen jaitsi zieten. Beraz, bere ahizparenera joan zen. Hala ere, honi, irakasle publikoa denez, soldata %5 murriztu zioten... -arnasa hartzen du gizonak. Kalean zehar, gizon bat ikusi zuen Mercedes batetik jaisten, traje dotore-dotoreaz, hainbat bizkarzainez inguratua, eraikin moderno batean sartzen. Pentsatzen geratu zen, aurpegi hura ezaguna egiten baitzizaion... Ah, bai! Zera, Camps ote zen bere izena? Eta amorruek estali egin zion: bera etxerik gabe, lanik gabe eta zorrak handitzen doazkiola, eta gizon hura, berriz, ustelkeria kasuetan sartua zegoena, euretatik inolako arazorik gabe aterata dena, irrifartsu, herritarrei zapaldu eta lapurtu ondoren, horra!, hor doa, imajina ezina den soldata batekin, edonolako luxuz beteta. Horretaz kexatzeko, jende mordo

elkartzen hasi da hiri handietan eta, gainera, politikari hauen eskuetan dago jende guzti hauen aldarrikapenak poliziarekin ixilaraztea, hala nahi badute -gizona ixildu egiten da.

- Hara ba, aizu! Mundua ez da perfektua.

- Horixe ezetz, neska! Tira, nik zera esan nahi nuen: politikari horiek, herritarrengatik hatzamarrik mugitu ez duten horiek, euren artean hitz itsusiaz estaltzen dira, gure dirua poltsikoetatik lapurtuz (eta poltsikoak ez diren banku horietatik), zigorrik jaso gabe aterata, euren lanetara normaltasun guztiz itzuliz, bost zerotik gora dituzten soldatekin eta guri aurpegira barre eginez, gu kale gorrian eta sosik gabe bizi garen bitartean.

- Beno, motel. Nahiago zenuke gure politikariek bake saria jaso izana, gero odol hotzez, inolako erreparorik gabe, gizon bat hiltzeko, bere emazte, seme-alaba eta bestelakoekin batera? Eta, gainera, horren ondoren, harrotasunez esatea aurrerapausu handia dela, tropak ez dakit nongo herrialde batean gerran sartuta dituen bitartean?

Eta gizonak, pentsakor, erantzuten dio: - Agian iritsi zaigu aldaketaren bat egiteko sasoa..., ezta?

HAIZA ARIZAGA

asteko

HEMEROTEKA

esaldia

"Larogei urtetik gora daramatzagu nahasketa folkloriko eta kulturaletik irten ezinik; hain nahastuta gaude ezpata dantza gerrako dantza dela uste dugula. Metaforatik haratago jo dezaketen intelektualen beharrean gaude eta, aldiz, gure dantzarekiko dugun gutxiagotasun-komplexua gainditu beharra dugu. Gure dantzekin harro bageunde, ez geundeke ballet garaikidea bihurtu nahiko; eta ez ginateteke inguruko herririk zaharrena garela behin eta berriz errepikatzen ibiliko"

(Juan Antonio Urbeltz, folklorista)

"Egindako ikerketa guztiak erakusten dute ilobek amaren aldetiko amonak dituztela gogokoan. Azken hauek alde handiarekin irabazten dute iloben lehentasun rankingean; euren atzetik doaz amaren aldetiko aitona, aitaren aldetiko amonak eta, azkenik, aitaren aldetiko aitona. Guzti horiek badu bere zentzua: emakumeok gehiago josten dugu gure amen etxera joatera. Azkenean, amaren aldetiko aitona-amonek gehiago implikatzen dira ilobaren hazkuntzan, baina amek horrela erabaki dutelako"

(Sacramento Pinazzo, Belaunaldien arteko Harremanetan aditua)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

1941-EAN JAIOTAKUEN BAZKARIXA

Aurten 70 urte bete edo beteko dittuenak ekaiñaren 4an alkartuko dira, Caserio tabernan bazkaltzeko. Parte hartzera animatzen diranak Untzagan batuko dira 12.30xetan eta bazkarixa 14.30xetan hasiko da. Izena emoteko azken eguna bixar izango da. Juan nahi dabenak 50 euro sartu biharko dau, izen-abizena ipiñita, Kutzako 0125620021 kontu zenbakixan. Informaziño gehixagorako 685784850 (Pello Bengoetxea), 615715926 (Luis Amuategi) edo 943203322 (Jose Jaio) telefonuetara deittu leike.

JAIZKIBELERA MENDI MARTXA

Hurrengo astebururako, ekaiñaren 5erako Jaizkibelera mendi martxa antolatu dabe Eibarko Gazte Asanblada barrixa osatzen dabenak, juan nahi daben guztiarendako. Urteeria Ego Gaiñetik egingo da, 08.30xetan. Pasaiera aillegau, Jaizkibeletik mendi bueltia egiñ, bazkaldu eta portuaren gaiñeko hitzaldixarekin amaittuko dabe egunpasia. Izena emoteko Monteka, Karrika edo Deporrian daguazzen zerrendetara jo leike edo emaila bialdu eibar-ko_gazte_asanblada@hotmail.com helbidera (kotxia eruateko modurik dakazuen zihetzia eskatzen dabe antolatzailliak).

1951-AN JAIOTAKUAK

Urte horretan jaiotakueri aditzera emon nahi detse azaruan bazkarixa egitteko asmua daguala, Iruki sagardotegixan eta antolatzailliak aurrerago, iraillian horren gaiñeko informaziño zihetzagua emoten juango dirala.

PSE-EE nagusi Eibarren eta Bildu indartsu sartu da

DOMEKAKO HAUTESKUN- DIAK PASAUTA, EKAIÑA- REN 11RAKO OSATUTA EGON BIHARKO DAU UDAL- BATZA BARRIXAK. Hillaren 22ko botaziñuetako emaitzak jasota, holan geratu dira Udala- reko botu-kopuruak: PSE-EE alderdixak 4.991 botu eskuratu dittu, Bilduk 3.673, EAJ-k 2.657, PP-k 1.112, Aralarrek 637, EB-Berdeak-ek 573 eta H1-k 300. Boto zurixak 252 izan dira. Parte-hartziari begira, 14.295 eibartar gerturatu dira azken hauteskunde honetan bozkatzera (ixa %64). Gauzak holan, udalian daguazzen 21 zi- ñegotzixak holan banatuta ge-



Hamar eibartarretik 6k emon eban botua domekan. / ANDER SALEGI

ratu dira: 9 PSE-EE alderdi- kuak izango dira, 6 Bildukuak, 4 EAJ-kuak eta 2 PP-kuak. Oiñ arte udalbatzian ordezkari- xak

euki dittuen Ezker Batuak, Ara- larrek eta Hamaikabatek, bar- rix, ez dabe ordezkariarik eu- kiko hurrengo legegintzaldixan.

Bestalde, Eibarren jasotako botueri begira honetxek izan dira Batzar Nagusixetarako emaitzak: PSE-EE alderdiak 4.395 boto jaso ditu (%31'12), Bilduk 3.623 (%25'65), EAJ-k 3.071 (%21'74), PP-k 1.253 (%8'87), Aralarrek 628 (%4'45), EB-Berdeakek 490 (%3'47) eta H1k 233 (%1'65). Zurixak 290 (%2'05), baliogabekuak 125 (%0'88) eta abstenziñua %35'96kua.



Eibartarrak Merkataritza eta Turismo Sarixetan

ZAZPI ERAKUNDE ETA ENPRESAK JASO DA- BE SARIXA 2011KO EUSKAL MERKATARITZA ETA TURISMOKO SARIXETAN, TARTIAN EI- BARKO CENTRAL DE COMPRAS EDERTO IZENEKUAK. Merkataritza sektoreko premixua eruan daben beste enpresak Carnicerías Izarzu- gaza (Bermeo eta Mundaka), Cerámicas Jorge Fernández (Gasteiz) eta Eugenio Tamayo (Do- nostia) izan dira. Horrekin batera Añanako Gatz Haranak Euskadiko Turismoko sarixa jaso dau eta aittamen berezixak Bilboko Portu Agintaritzak

eta Tolosako Topic zentruak jaso dittue. Ekitaldi- xa EHUko Bizkaia Aretuan izan zan eta merkata- ritzaren eta turismuaren sektorietako 500 bat la- gun batu ziran bertan.

Azken ediziño honetan sarixa jaso daben Cen- tral de Compras Ederto enpresak Gipuzkuako hainbat harakiñen arteko lankidetzari esker sortu zan 1999. urtian eta hurrengo urterako lankidetz- a hori beste eremu batzuetara zabaltzia erabagi eben. 45 saltoki dagoz guztira Edertorekin alkar- tutako harategi eta urdaitegixen sektorian.



Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte
itxoiten dugu maiz



asteko

444

datua

umek emon dabe izena Oporrak Afariketean programan; lehelengo txandan parte hartuko daben umiak 240 izango dira eta bigarrenian 204. Udan Jolasetan izena emon daben umiak, barriz, 46 izan dira.

Ehundaka lagun Abontzan eguzkopian

MENDE LAURDENA BETE DABE GUARDIA ZIBILLAREN ALDAMENIAN DAGUAZEN EGIGURENTARREN KALEKO ETXIAK eta han inguruan bizi diranak ederto ospatu eben efemeridia, auzoko jaixekin bat eginda. Eguzkixa lagun, ehundaka lagun alkartu ziran Abontzako poligonuan aurreko asteburuan.


Barixakuan patata tortilla lehiaketaren III. ediziñua egin zan eta Iñaki Barrietabeña izan zan irabazlia. Zapatuan, bestetik, paella jana egin zan eta 400 bat lagunek hartu eban parte bertan, bapo janda, bazkaldu aurretik txistorria banatzen ibilli baziran be. Ar-



Gaztienak edarto pasau eben jokuekin. / MAIALEN BELAUSTEGI

do dastaketa egin zan ostian eta Josu Etxabe nagusitu zan 150 partaideren artian. Azkenengo egunian, domekan, au-

zoko hildakuen aldeko mezia egin zan 12.00xetan, beste urtietan moduan, Goruntz abesbatzaren laguntzarekin.



Fraisoroko umezurtz-etxiaren gaiñeko liburua

EGUNIAN, EKAIÑAREN 2XAN EVA GARCÍA MAGRIÑAK IDATZITAKO "FRAISOROKO AMAK, FRAISOROKO HAURRAK" LIBURUAREN PRESENTAZIÑUA EGINGO DABE Portalean, 19.30xetatik aurrera. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak argittara emondako liburuak, bertako ordezkariaren berbetan, "Gipuzkoa osotik Zizurkilgo Fraisoro etxera ezkondu bariko ama izatekotan biltzen ziran andrakumien historia kontatzen dau batetik eta, bestetik, bertan jaixo edo tornuetan, eliz-atarixan, bide baztarren batian edo etxe bateko atian abandonauta lagata bertara biltzen zittuen haur jaixobarrixena. XX. mende osuan Zizurkilgo Fraisoro etxia izan zan ama eta haur horrek guztiak bildu eta urtenbidia eskindu zetsena. Historia benetan hunkigarri eta interesantia!".




Elikagaixak jasotzen Saharara eruateko

SAHARAKO ERREFUXIATUERI ERUATEKO ELIKAGAIXAK JASOTZEKO KANPAIÑIAK AMAIERARA AILLEGATZEN DIHARDU; izan be, maiatzaren 31 izango da jatekuak batzeko azken eguna. Saharakueri lagundu nahi izanez gero, arroza, lekaliak, atuna olixotan, sardiñak olixotan, olixua, konpresak eta nagusixendako ojaliak batzen dihardue Eroskin (Ipurua, Urki eta Urkizun), BM-n, Dia-n, Villalvan, El Corte Inglés-ian eta Isasi okindegixan.

Euskeria ikasteko diru-laguntzak

HERRIKO EUSKALTEGIXETAN EUSKERIA IKASI NAHI DABEN HAINBAT SEKTORETAKO EIBARTARRENDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIXA kaleratu dau Eibarko Udalak: Eibarren erroldatutako 12 urte arteko seme-alabaren bat daken guraso eta tutoriendako, merkatari, ostalari eta zerbitzuen sektoreko bihargiñendako, euskera



plana daken enpresetako bihargiñendako eta 65 urte edo gehixagoko jubilauendako. Euskeria egitten dabena derrigorrez Eibarren erroldatuta egon biharko da eta 2010-2011 ikasturtian %85eko asistentzia izan. Diru-laguntza gehixenez matrikularen %50ekua izango da. Euskeriak Pegoran presentau biharko dira, abuztuaren 31 baiño lehen.




80 bat gazte hartu ditu Aspacek sorreratik hona. / MAIALEN BELAUSTEGI

Aspaceren 38 urtiak ospatzen

EIBARKO ASPACEK 38 URTE BETE DITU AURTEN ETA, HORI OSPATZEKO ASMUAREKIN, bazkarixa egiñ eben sorreran, alkartiaren lehelengo urtietan parte hartzen jardundako hainbat lagunek. Argatxan, eskilleretan taldiaren erretratua etara eta jarraixan pareko sagardotegira juan zi-

ran alkarrekin bazkaltzera. 1973an atiak zabaldu zittuanetik, Aspacek 80 bat gazte hartu izan ditu eta 15 bat irakasle-monitoren jardun dabe bertan biharrian. Aspacek burmuñefeko paralisixa eta antzerako gaigabezixa dakenendako prebenziñua, tratamientua eta errehabilitaziñua eskintzen ditu.




Karlista eta liberalen bertsoak kantau zittuan Tapiak Coliseoan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Errepublika sasoiko kantuak

JOSEBA TAPIAK "TIRA ETA TUNBA" DISKUA AURKEZTU EBAN AURREKO BARIXAKUAN, Coliseoan emondako kontzertuan. Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren 80. urteurrenaren harira Udalak antolatutako emanaldixak apirillian hasittako programaziñua agurtu eban. Kontzertura juandakuak, Bigarren Karlistadan karlistak zein liberalak idatzittako bertso musikatuekin gozatzeko aukera paregabia euki eben.

anzorik anzo



Agur herriko etxe zaharrenetakueri

Oiñ hurrengo Eibarren daguazten eraikin zaharrenetarikuak, San Andres pasealekuko 6. eta 7. pegorak botatzen hasitta dagoz. Ego Ibarra batzordiak jasota dakanez, "Augusto Agirre arkitektuak 1913an eraikin bakar legez proiektatu eban eraikiña, eskillara bakarrarekin, baiña eraikuntzaren uneren batian, nola ez dakigula, 'siames' tankerakuak billakatu ziran: baktotxak bere eskillara eta sarbidia zekan, baiña bixak zeken egitura eta fatxada-konposiziño bardiña. Egurrezkuak ziran etxe bixen kargahormak eta egitturak, izan be, orduan sasoian, egurra baitzan eraikuntza materixal merkiena, eta eraikiñak, bihargin famelixeri bizilekua errentan emotia zekan helburu".

Eraikiña eskuz botatzen dihardue, sosiguz, etxiaren egoeria makala dala eta. Horregaittik, etxia erabat erautsi aste batzuk pasauko dirala dake aurreikusitta biharron arduradunak. Ego Ibarra batzordia idatzixarekin jarraituta, "ez da marka makala 96 urtera hain xede xumiarekin jasotako eraikuntza batendako, baiña azkenian, egurraren ahuleziari, denporaren juanak, trafiko astunak eta eguraldixak berak, nabarmena dan narriadura ekarri detse eraikiñari, bereziki 2002. urtiaz geroztik habetuta dagan 6. pegoriari, bota biharrera ailllegau arte".

eibar kaleka

Sansaburu kalia

Beste hainbat kalerekin pasautakuaren bidetik, hamen be Sansaburu izenak gerra ostian herrixa haunditzen hasi zanian desagertutako basarrixa gogoratzen dau.

Pegora kopurua: 7

Erroldatutakoak: 160



Zer deritxozu 15M-ko mugimenduari?

Martxuaren 15ian herritar talde bat Madrileko Sol plazan batu zan. Hasarre zeguazen. Haserre egoera ekonomikuarekin, hauteskunde sistema, agintarixekin... Benetako demokrazia eskatzen dabe. Ordutik, jende asko batu jakue eta ekintzia mundu osora zabaldu da. Eibarren be Untzaga plazan talde bat bildu izan da.



SANDRA CRUZ
40 urte
etxeke bihargiña

Ez nago ados mugimendu horrekin. Jakin bihar da zeren kontra egitten dozun eta begittantzen jata badaguazela gauza batzuk ezin diranak protestau. Gaiñera, begittantzen jata badaguazela beste modu batzuk protestatzeko.




MIKEL SARASKETA
61 urte
elektrizistia

Langabezixan 5 millioi pertsona egonda zelan ez dau ba jendiak kalera urtengo? Nik ez dot parte hartu oindiñok halako billeretan, izan be hemen inguruan ez da mugimendu askorik egon, baiña Madrillen izanez gero juango nintzan. Protestatzen ez badozu, ez dozu ezer lortuko.


JAVIER PILDAIN
60 urte
aurrejubilaua

Ikusi dot gehixen bat gazte jendia batu dala Sol-en eta egin diran beste akanpadetan, eta espero dot horren ondorioxoz zeozer aldatzia. Ikusten da gaur egunian egitten dan politikarekin eta politikuekin ados ez daguazela.



MARI CARMEN LARRAÑAGA
etxekeandria

Ez dot gehixegi entenditzen gertau danaz, baiña pentsatzen dot batasunak indarra egitten dabela. Holan, jendia mobilizatziak zeozer ekarriko dau, seguru. Danok gauza baten alde egitten badabe, lortuko dabe helburua.



IGNACIO IBARBIA

(VI. Urteurrena / 2005-V-31)

Zure muxuen goxoa besarkaden berotasuna jada badira sei urte zugiandik ez ditugula. Maiztzak 31 ditxosozkoa eguna gugiandik banatu zinen betiko gure tristura hainbeste maite gintuzun eta guk maite zintugun gure barnean hala ere betiko izango zaitugu zugiandiko maitasuna apurtu ezingo dugu munduko aitarik onena nola ahaztuko zaitugu!



Maite zaitugunon partez
(HABANERA)

ARTOLA jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

*Paletilla iberikoa
Etxeko foie-a
Piña, gazta freskoa eta intxaurren entsalada
Legatza labean
Solomilloa plantxan edo
Karrillera ondo-saltsarekin
Degustazio postrea edo
Txokolate moussea edo
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

Eguaztenean, Euskararen transmisioa mintegia izan genuen Portalea Kultur Etxean. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako egitasmoan Euskal Herri osotik etorritako irakasle, euskara teknikari, Euskara Elkarteetako teknikari eta orohar euskalgintzan lanean diharduten 50 lagun inguru elkartu ziren.



Goizeko hitzaldiak amaituta, Deporrera bazkaltzera joan aurretik, talde-argazkia atera zuten mintegian parte hartu zutenek. / ANDER SALEGI



Euskararen transmisioari buruzko MINTEGIA

Antolatzaileen hitzetan, “euskararen erabileraz arduratzen garenok, ezin dugu erabilerarako ezinbestekoa den transmisioaren gakoa alde batera utzi, transmisioak gaitasuna ezezik, hizkuntzarekiko baloreak eta ardura ere dakartzalako. Dakiguna gure ondorengoei ematen diegunean hizkuntza horrekiko begirunea erakusten diegu, balekoa dela esaten ari gara eta eurona ere badela adierazten diegu. Transmisioa hain garrantzitsua izanik, ezinbestekoa da alor hau aintzat hartzea, modu estrategikoan lantzea, eta plangintzak definitzea”.

Ekimen honen helburua, gaiari sendota-

sunez heldu eta mintegi baten bitartez gaiaren inguruan dauden esperientzia eta praktika onak elkarbanatu eta ezagutarazteaz gain, transmisioari buruz eztabaida eta lan-ildoak definitzea da.

Egun osoko mintegia izan zen, non besteak beste transmisioan parte hartzen duten hainbat eragileren zein adituren partaidetza izan zen. Goizean zehar, hiru esparru desbedinen ikuspuntutik momentuan dauden esperientzien berri eman zen: udaletako ekimenak, aisialdi edota euskara elkarteek garatutakoak eta azkenik hezkuntza formalaren ikuspegitik bideratutakoak.

Elkarrekin bazkaldu ostean, arratsalde-

an, Paula Kasares soziolinguistak hitzaldia eskaini zuen eta arratsaldeari amaiera emateko iritzi trukaketa eta lan ildoak definitzeko asmoarekin, parte hartu zutenen arteko mahaingurua izan genuen.

Antolatzaileek adierazi dutenez, “asko gara transmisioaren gainean lanean dihardugun euskara elkarte, instituzio, aisialdi talde, irakasle edota guraso elkarteak. Beste alorretan pasatzen den moduan, erakunde bakoitzak bere kabuz somatu dituen premiak asetu nahian. Mintegi honek jarraipena izatea nahiko genuke eta datoren urtean gaia jorratzen segitzea gustatuko litzaiguke”.



“Euskararen transmisioa EAEn”

JON AIZPURUA, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza ikerketa eta koordinaziorako zuzendaritza.

Jon Aizpuruaren berbetan eskolek garrantzi handia dute euskararen transmisioaren bidean, baina hala ere, “familia bidezko transmisioa da bide natural eta merkeena”. Gurasoek euskaraz egiteko duten gaitasuna oso garrantzitsua bada ere, “erraztasuna ere kontutan hartu beharreko faktorea da”. 1999an egin zen Munduko Hizkuntzen Biltzarrean ondorioztatu zenez, “aita eta ama euskaldunak eta lehen hizkuntza euskara izan dutenean, transmisioa erabatekoa izango da, eta bie-

tako batek lehen hizkuntza euskara izan badu baina besteak ez, transmisio tasa ere altua izango da, %90ekoa. Aldiz, aita eta ama euskaldunak izan arren, euskara ez badute etxetik jaso (euskaldun berriak) transmisioa txikiagoa izango da”.

“Etxean lehenengo hiru urteetan jasotzen den hizkuntzarekin hasten da transmisioa, baina hori ez da nahikoa. Transmisioa egonkortu egin behar da eta horretarako erabilera, eta jakina, gurasoen jokabidea dira gakoa”, gaineratu zuen Aizpuruak.



“Nafarroako Euskara Zerbitzuak”

PATRI ARBURUA, *Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria.*

Nafarroako Euskara Zerbitzuek gaur egun euskararen transmisioa lantzeko abian duten egitasmoen berri eman zuen Arburuak, *“familiei etxean euskararen erabileran aurrera egiteko gomendioak ematen dizkiegu, noiz eta nola erabili euskaraz familian, eta gomendio zehatzak dira tipologia bakoitzeko familientzat, baina beti ere gomendio horiek praktikara eramateko baliabideak ere eskain-*


tzen dizkiegu”. Aurten, horrenbeste urtetan sortu duten material oparoa baloratzeko unea heldu da eta familiekin hartu-eman zuzena lortu nahian opari- txartel baten bidez gurasoak euskara zerbitzuetara hurbildu nahi izan dituzte, familiak aurrez-aurre ezagutu eta banatzen duten materialaren egokitasuna ebaluatzeko aukera izanez. Ebaluaketa datu horiek ere aurkeztu zituen Arburuak.

“Hizkuntza proiektua gurasoei begira”

HELENA BARAIBAR, *Euskal Herriko Ikastolen Elkarte*ko hizkuntz egitasmo *teknikaria.*

Euskararen normalizazioan ikastetxeek egiteko handia dutela nabarmendu zuen Baraibarrek, baina ikastetxe eta euskalgintza osoaren eta Euskara Zerbitzuen arteko elkarlana ezinbestekotzat jo zuen teknikariak. Hizkuntzarekiko jarrera ere azpimarratu nahi izan zuen, *“gurasoek eragile ordezka ezinak dira, haurtzaroan jasotzen dugun hizkuntzarekiko jarrera horrek eragin handia duelako. Umeen harreman sareari ere erreparatu behar diogu. Izan ere 12 urtetik aurrera lagunartek hartzen du ordurarte gurasoek izan duten pisua jarreretik”*.

Eskolak transmisioan badu bezaraz paper garrantzitsua, baina *“askok uste dute euren seme-alabak D ereduan sartzeagatik umea euskaldundu egingo dela, eta hori*



pentzatzea okerra da, horrez gainera, sentipen positiboak ere eman behar zaizkielako”. Hizkuntz proiektuak ikastoletan ganoraz garatu behar direla dio Baraibarrek, *“guraso eta ikasleekin egin behar dugu lan, haur txikienetan ereindako hazia loratuko delako DBH eta Batxilergoan, bizipenak eta ilusioa erein behar dizkiegu, haiek dira eta biharko gurasoak”*.



“Transmisioa aisialdian”

GETXO ETA ARRASATEKO ESPERIENTZIAK

EGIZU GETXO euskaldun elkarteak Sendi proiektua jarri zuen abian orain dela 5 urte, gurasoek euskaraz berba egin eta euskarazko jardueretan ondo pasatzeko helburuarekin. Ikastetxeekin elkarlanean garatzen duten egitasmoak Udalak eskaintzen dituen diru-laguntza berezien berri ematen die gurasoei, berbalagun taldeak eskaintzen dizkie euskara praktikatzeko, eta horrez gainera, seme-alabekin batera egiteko moduko irteera, ikastaro eta tailerrak ere antolatzen dihardute. Potentzialitate handia ikusten diote gainera programari, *“etorkinak, erdaldunak gureganatzeko, baina baita guraso motibatuenak gureganatzeko ere. Eragin egin behar dugu, ez dakitenek ikasi dezaten eta erabiltzen ez dutenek erabil dezaten”*, esan du Egizuko LANDER SOLOZABALEK.

ARRASATEKO TXATXILIPURDI Elkarteak urteak daramatza aisialdian haur eta gazteekin euskararen erabiler

ra esparrua lantzen. Gurasoen hizkuntza ohiturek umeengan duten eragina ardatz harturik familiengana jo zuten zuzenean eta euren zuzendutako egitasmoak jarri zituzten abian. *“Besteak beste, webgunea, tailerrak, irteerak, ikastaroak... eskaintzen dizkiegu, azken finean, gurasoei umeekin euskaraz jolastu, ikasi eta ondo pasatzeko aukera eskaini nahi diegu”*, Txatxilipurdiko AIZPEA OTXANDIANOren berbetan.



“Buruntzaldeko ekimenak”

MALORES ETXEBERRIA, *Hernaniko euskara teknikaria.*

Buruntzaldeko sei herrietan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen, euskararen familia bidezko transmisioa lantzen ari dira udaletako euskara zerbitzuetatik. Lan-ildo bat baino gehiago ditu egitasmoak eta, ondorioz, jasole desberdinak: gurasogaiak, guraso berriak eta eskoletako gurasoak. Euskara teknikariak azaldu duenez, *“bospasei urtetan bide bat egin da, material batzuk sortu dira eta lan modu batzuk probatu dira”*. Bide horretan ikastetxeak beren osotasunean inplikatu behar direla nabarmendu zuen Etxebarriak, *“ez bitarteko gisa soilik, baizik eta agente aktibo gisa”*.

PAULA KASARES
Soziolinguistikan doktoregaia, UPNAko irakaslea eta Euskaltzain urgazlea
“EUSKARAREN BELAUNEZ BELAUNEKO JARRAIPENA. HIZKUNTZA PLANGINTZARAKO HAUSNARKETA”

“HIZKUNTZAK BIZI DIRA BELAUNEZ BELAUN TRANSMITITZEN DIRELAKO” PREMI-SATIK ABIATUTA, galdera interesgarri batera saltoa emanda ekin zion hizkuntzalariak bere saioari: “Nola ailegatzten da komunitate bat berea duen hizkuntza hori ez transmititzera?”. Kasaresen berbetan, “fenomenoa ez da arraroa, komunitate anitzek jasan izan dute, batez ere hizkuntza bik elkarren ondoan bizi behar dutenean. Horrelakoetan maiz gertatu ohi da ahularen erreproduzio mekanismoa higatu, ahuldu egiten dela”.

Fenomenoari laguntzen dioten hainbat egoera ere ekarri zituen gogora bere mintzaldian: “Pasaian eta beste hainbat tokitan dokumentatuta geratu den moduan, Francoren garaian-eta erdara umeen bitartez ailegatzten zen etxeetara, umeek euren eskatzen zieten gurasoei mesedez erderaz egiteko, bestela eskolan nahikoa zigor pairatu behar baizuten gazteleraz ondo ez egiteagatik”. Eta, ho-

rrekin batera, hizkuntza transmititu behar zuen belaunaldian zabaltzen den sentimendua honakoa da: “Zertarako transmititu behar dut, ba al du zentzurik euskeraz irakastea gero ez bada inon erabiliko?”. Horrelako testuinguruan beste prozesu bat ere ematen dela dio Kasaresek: “Hizkuntza ez da berez transmititzen, batzuek hizkuntza hori irauarazi dute, hizkuntza horri atxiki diotelako. Horrelakoetan hiztunen nahiak, borondateak baldintzatzen du transmisioa”.

Transmisioaren etetea emateko arrazoi eta faktore batzuk aipatzearen, hizkuntza nagusiak eragindako presioa, ikasi beharra, bikote mistoak eta

Haurrek euren adinkideekin euskera zenbat erabiltzen duten begiratu beharko genuke

MAHAINGURUA

“Transmisioa bermatzeko urratsak. Lan ildo estrategikoak”

JAIME ALTUNAK GIDATUTA, MAHAINGURUA EGIN ZEN MINTEGIAREN AMAIERAN. Hitzaldia eman berri zuen Kasaresekin batera, Eneko Barbarena, Helena Baraibar eta Malores Etxeberria jarri ziren mahaian. EAEko erabilera datuak eskuan, horien gaineko balorazioa eskatuta ekin zion debatai eta bertatik hainbat ondorio atera ziren: hasteko, euskararen inguruko ezagutza transmititzen den arren, erabileraren inguruko datuek behera egiten dihardute.

Ikastolako ordezkariak azpimarratu zuenez, “eskolak berez, berak bakarrik ezin du inor euskaldundu” eta gizarteko harreman sareei garrantzi handiagoa eman behar zaie. Etxe barruko eremuari erreparatuta, familiei transmisioaren garrantzia jakinarazi behar zaiela uste dute, hizkuntza baten hezteara zer den azalduta eta familiei aktibatze bitartekoak emanda. Umeentzat euskera erakargarria gerta dadin, ikastetxe eta irakasle kutsua kentzeko premia ere jardun zu-



Kasaresek komunitate batek berea duen hizkuntza ez transmititzera nola ailegatzten den azaldu zuen, beste kontu batzuen artean. / SILBIA HERNANDEZ

beste hainbat zerrendatu zituen, baina ez eteteko arrazoietan aparteko indarrez azpimarratu zituen “hedonista” gisara definitu zituen beste hainbat, tartean “bakoitzak bere hizkuntzan egitearen gozamena”.

Sarritan hizkuntza non ikasten den begiratzten hastean familia esparrura mugatzen gaila azaldu zuen Nafarroako Unibersidadeko irakasleak, baina hizkuntza bat ikasteko prozesua “interaktiboa eta parte-hartzailea” dela argi laga zuen eta erabileraren inguruko neurketarako parametro ohikoenak hankazgora bota zituen: “Bene-

tan begiratu beharko genukeena ez da zenbat haurrek egiten duten euskeraz, baizik eta zenbateraino erabilten euskera euren adinkideekin, euren artean”.

Askoren kasuan euskara “hizkuntza erabiltzeko eremuan jarraipenik ez duen irla” modukoa da eta familian bertan ere hizkuntzaren erabilera ez dela homogenea azaldu zuen Kasaresek. Egoera dena delakoa ere, “transmisiorako baldintza egokiak sortzeko aukera hiztunen esku dagoela” esanda, hausnarketa sakonerako atea zabalik lagata agurtu zuen potentzia Kasaresek.



Besteak beste, eskola kutsua eta bestelakoengandik aldentzeko premia aipatu zuten. / S.H.

ten, umei esperientzia errealak eskainita. Adibide oso grafikoa erabili zuen Barberenak: “Semaforo parean haurra eskutik helduta berdean pasatu behar dela azaltzen duen gurasoak zer sentitzen du inguruko beste guztiak

gorrian bidea zeharkatzean? Eta umeak zer pentsatzen du?”. Euskera benetan “modan” bizitzako eremu guztietan egoteko premia, prestigioarekin jatzeko beharra dagoela ondorioztatuta agurtu zen jardunaldia.

TEEN-
AJEA



Maiatzaren 6an hasi ziren **Jaiak Herriak Herriandako** taldeko kideak **Sanjuanetarako** ekintzak prestatzen. **Barikak** berrak batzen dira **Portalea** eta **Monteka** artean dagoen **parkean 19.30etan**, eta gonbidapena egiten die ekintzen prestataketan **parte-hartu** eta lagundu nahi duen **edonori** eurengana hurbildu dadin.

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO:

“Txosna-gunea egotea aurreikusten dugu”

- Hilabete geratzen da Sanjuanetarako. Nola doaz zuen prestataketak?

Hiru aste daramatzagu lanean. Hasieran azken urteetako Sanjuaneri erreposoa eman diegu eta ondorioak atera ditugu. Ondoren, lan-talde txikietan banatu gara eta horrela dihardugu lanean.

- Zerbait aurreratu dezakezue?

Lan-talde bakoitzak gai jakin baten gainean egiten du lan. Horrela, esan daiteke LipDub bat egingo dugula, kamiseta lehiaketa... LipDub hori ekainaren 10ean egiteko asmoa daukagu. Herriko eragileekin kontaktua egin dugu eta herria jaietan inplikatzeko da gure asmoa honekin, jai partehartzaileen eredu bultzatzeko. Kamisetari dagokionez, bestetik, beti egin izan dugu kamiseta bat Gazte Egunean banatzen zena. Horrela, lehiaketaren bitartez kamisetaren diseinua erabakiko da eta, bide batez, jendearen partehartzea bultzatu. Jaiak herritarak, euskaldunak, partehar-


tzaileak eta parekideak izatea da gure nahia.

- laz ez zen txosna-gunerik egon. Nola ikusten duzue aurten kontu hori?

Sanjuaneri begira txosna-gunea egongo dela aurreikusten dugu. laz txosnak epaitegian ez ipintzeko arrazoiak genituen, tokiak ez baitzuten baldintza minimoak betetzen. Udalaren jarrera oso itxia izan zen zentzu horretan. Aurten txosna-gunea kontenplaten dugu, ez epaitegian, baina bai beste gune batean, aurrera atera nahi ditugun ekintzetarako baldintzak betetzen dituen batean.

- Nolako da Sanjuanetarako egin beharreko lana?


Lan handia egin behar da. Jendea asko kostatzen zaio mugitzea eta gaitza da. Hala ere, gero eta jende gehiagok hartzen du parte, batez ere ekintzetan, eta horrek animatu egiten gaitu. Finantziarioari dagokionez, bestetik, zailtasun handiak daukagu. Zozketen bitartez lortzen dugu dirua gehienbat...



JOSE RAMON BECKMANN OROZCO
I. URTEURRENA (2010-V-29)

MAITE ZAITUGULAKO,
gurekin zaude, gurekin betirako.

ZURE EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA AMA





Hezkuntzaren Astea emakumeen alde

ALDATZE IKASTETXEAN HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKO ASTEA EGIN ZEN apirilaren 11tik 15era eta aurtengo izenburua honakoa izan da: Hezkuntza ez da txantxa! Nesken eta emakumeen eskubideen alde. Aldatzek Euskal Herriko eta munduko hainbat ikastetxe eta elkartekin egin zuen lan ekimena sustatzeko.

Ikasgaietan hezkuntza izatearen garrantzia, eta neskek eta emakumeek pairatzen

duten bazterkeria landu zuten modu anitzetan. Batetik, 'Binta y la gran idea' izeneko filema laburra ikusi zuten LH eta DBHko ikasleek eta horren gainean jardun zuten. Bestetik, 'Eskolarako lasterketa' izeneko ekimena garatu zuten. Bertan taldeka lasterketa egin zuten eta helmuga eskolara iristea izan zen. Honen helburua ikasleek munduko neskato askok eskolara heltzeko egin behar dutena zuzenean bizitzea zen.

Unikoek Durango eta Iurretako wifi mapa osatu dute

UNI EIBAR-ERMUAKO INFORMATIKA IKASLEEK DURANGO ETA IURRETAKO WIFI MAPA OSATU ZUTEN orain dela aste bi. Ikasleak bizkaiko herri bi hauetan izan ziren dispositibo ezberdinekin inguru horretan dauden wifi sareak antzemateko asmoarekin, honetako zeintzuk izaera librearen duten jakin eta eskaintzen duten intentsitatea jakiteko.

Wifi mapa egiteko ibilbide ezberdinak egin zituzten ikasleek (10 herri bakoitzeko) eta eramangarri, PDA, PSP, Nintendo DS eta antzeko gailuekin osatu zuten mapa. Hau www.iesunibhi.com webgunean dago ikusgai. Honakoa ez da Uniko ikasleek herri bateko wifi mapa garatzen duten lehen aldia. Aurretik Eibar, Ermua, Ondarroa eta Bergaran ere ibili ziren informatika ikasleak.



La Sallekoak txangoan

LA SALLE AZITAINGO DBH-KO IKASLEEK BIDAIATZEKO AUKERA IZAN DUTE AZKEN ASTEOTAN: abentura, barre eta emozioz beteriko egunak pasa zituzten euren berbetan. DBH-ko 4. mailakoek Zaragoza alde-dera jo zuten, Murillo de Gallegora, eta abenturazko kirolak egin zituzten bertan. Gasteiz eta Zuhatza aldean hiru egun pasa zituzten La Salle Azitaingo DBH-ko 2. mailako 59 ikasleek (eta 3 irakasleek). Gasteizen Eusko Legebiltzarra eta Santa Maria katedrala bisitatu zuten gazteek. Hurrengo egun biak Zuhatzako uhartean



DBH1-ekoak Abaltzisketan.


Trebezia erakusten patinete gainean

BBK SKATE TOURRA IRITSI ZEN GURERA JOAN DEN ZAPATUAN ETA HERRIKO SKATERREK EUREN ABILEZIA erakutsi ahal izan zuten Urkizuko parkean. Patinatzaile profesional biren laguntzarekin, gazteak moduluetan gora eta behera ibili ahal izan ziren. Trebetasuna erakutsi zuten bertan bildu ziren patinatzaile gazteek eta, era berean, euren teknika hobetu ahal izan zuten ikastaroa aprobetxatuta.



DBH4koak Murillo de Gallegon.

igaro zituzten, hainbat kirol eginez. Gazteek, berriz, Abaltzisketatik Larraitzera oinez joan ziren ibilbideko animalia, landare eta mendiak ezagutzeko. Eguraldia lagun izan zuten DBH-ko 1. mailakoek.



DBH2koak Zuhatzan.

CREMIOEN

GIDA



ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

GARBIKETAK

escudero
INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

ELEKTRIZITATEA



ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I N D U S T R I A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

CRISTALUX
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superfizie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171



Barrena, 21 - 1. F

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,
armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, aholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadgurria.com

**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



irazabal

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



Pinturas Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Pintura Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atearak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)


Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa erabakiko da bihar Azpeitian

AURREKO JARDUNALDI GUZTIAK 17.00ETAN HASI ZIREN, BAINA BIHAR EGUERDIKO 12.30ETAN DUTE HITZORDUA

Gipuzkoako XLII. hiru txirlo txapelketaren azken jardunaldian parte hartuko dutenek. Tiraldia Azpeitiako Garmendipeko bolatokiaren jokatu da eta, jarraian, parrekoak erabakiko dira -hau da, berdinduta dauden artekoen sailkapen ordena-. Behin lehia amaituta, bazkaria izango da Lau Bide jatetxean eta, bazkal ostean, oroigarriak banatuko zaizkie omenduei (sei izango dira oraingoan: Josetxo Esteban "Azitain", Antonio Antxustegi, Segundo Pagaegi, Sabín Arriaga, Antonio Ibarluzea eta Antolin Arizmendiarieta) eta maila guztietako txapeldunek jasoko dituzte sariak.

Floreagan jokatu da azken jardunaldian 80 bolarik hartu zuten parte, Lasturreko Jo-




Orain dela gutxi laga gintuen Josetxo Esteban izango da azken jardunaldian omenduetako bat.

seba Lazkanoren garaipenarekin (zortzi txirlo bota zituen) eta Ganix Rodríguez eibartarra bigarren postuan sailkatuta. Azken jardunaldiaren bezperan, Asola-Berriko lau ordezkari ditugu sei lehenen artean eta aukera handia dago txapela Eibarrera ekartzeko: Arkaitz Rodríguezek jarraitzen du lider, 29 txirlorekin, Bittor Astigarragaren aurretik (honek 27 txirlo etzan ditu). Eibarko bikotearen

atzetik daude Imanol Osoro San Migueleko elgoibartarra (25), Bittor Ugarteburu eta Lasturreko Joseba Lazkano (24) eta Gaizka Unamunzaga (23). Taldeka, garaile garbia da Asola-Berri A, hamahiru txirlo ateratzen baitizkio San Miguel B bigarrenari; eta, bikoteka, Ugarteburuk eta Astigarragak osatutakoak zazpiko aldea ateratzen die hurrengoei, tartean Ibai Díezek eta Ganix Rodríguezek eibartarrek osatutakoari.

Foball-7ko 14. edizioaren deialdia kalean

EIBARKO ETA ELGOIBARKO KIROL PATRONATOEK ANTOLATUTA, MARTXAN JARRI DA BAILARAKO XIV. foball-zazpi txapelketa. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute hilaren 30a baino lehen aipatutako patronatoetako batean. Txapelketan parte hartzeko beharrezkoa da 18 urteak eginda izatea eta, gehienez ere, hogeitaldentzako tokia izango da lehiaketan. Torneoan foball-11ren arau berberak jarraituko dira eta, talde bakoitzeko kantxan jardungo duten zazpi jokalarietatik aparte, beste bost ordezkorentzako tokia izango da. Zozketa bidez lau multzo egingo dira eta euren arteko partidu bateko ligaren bidez erabakiko dira finaletara pasatuko diren lau taldeak.



Gehienez jota, 500 lagun izango dira edizio honetako martxan.

Debabarrenaeko III. BTT martxarako izen-ematea zabalik

EKAINAREN 26-AN EGINGO DEN BTT MARTXAREN 3. EDIZIORAKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO JADANIK www.debabarrena.turismo.com webgunean; gehienez jota, 500 lagunentzako tokia izango da proba horretan. Aurreko edizio bietan moduan, parte-hartzaileek bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute: laburrenak 25 kilometro izango ditu eta besteak 45. Bata zein bestearen irteera eta helmuga puntua Mintxetan kokatuko da eta, berrikuntza moduan, behin martxa amaituta bertan bildutakoek aukera izango dute bertan bazkaltzeko; ez hori bakarrik, Mintxetako estaligabeko igerilekuetara joateko sarrerak ere banatuko zaizkie-eta. Horrez gain, sari ugari zozketatuko dira.

Eibartarrak Preferentera igo da berriro

URTE BAKARRA PASATU DU EIBARTARRAK-EK 1. MAILA ERREGIONALEAN ETA, BERE MULTZOKO BIGARREN POSTUAN SAILKATUZ, Preferentera igo da berriro azken jardunaldian Kostkas-i Donostian 1-4 irabaziz. Azken jardunaldietan abiadura berezia hartu dute Juan Lópezek entrenatzen dituen mutilek eta, igoera fasean bigarren itzuli bikaina egin ondoren, Legazpiko Ilin-



txarekin batera mailaz igotzeko txartela eskuratu dute. Igoerako multzo berean jardun du Gazteak-ek eta Kopako multzoan izan dira Urki eta Eibartarrak-en bigarren taldea.

Waterpolo eskolako zortzi igerilari Italiara

INFANTIL MAILAKO URBAT-URKOTRONIKEK 20-9 IRABAZI ZION GETXO-SESTAORI ORBEAKO IGERILEKUAN eta Euskal Herriko ligako 8. postuan amaitu du, Gipuzkoako bigarren taldea izanik. Eta senior mailako taldeak ere beste 20 gol sartu zituen eta 12an lagatu zuten Donostiako Ea-

so. Bestalde, infantil taldeko waterpolo eskolako honako zortzi jokalarik Italiara joango dira (senior taldekoekin batera), nazioarteko torneo bat jokatzeko: Unai Etxaburu, Iker Garcia, Imanol Nieto, Mikel Sánchez, Alex Sarasua, Izei Sologaistua, Joseba Urkia eta Mikel Recio kapitaina.





Klubeko zaletu, jokalar, teknikari eta zuzendaritzakoek denboraldia ospatuz amaitu nahi dute.

Eibar Foball Taldea, igoera helburu, beste egun handi baten atarian

IPURUA GAINEZKA EGONGO DA BIHAR, ARRATSALDEKO 18.00-ETAN, EIBARREREK SABADELL-EN AURKA JOKATUKO DUEN PARTIDUAN. Astekari hau inprentara bidean zegoela, bazkideek lortu ahal zuten sarrera gehigarri guztiak agortuta zeuden eta 500 baino gutxiago ziren euren sarrera jaso barik zutenak. Ipuruak 5.250 lagunentzako lekua du eta kanpoan geratu beharko da bat baino gehiago.

Sabadellen 0-0 berdindu eta gero, aukera polita dute Manix Mandiolaren mutilek bide laburra hartuta maila igotzeko; hala

ere, kontuan izan behar da, kataluniarrek gola sartuz gero, gauzak korapilatu egingo zaizkiola Eibarri. Gañán da zalantza bakarra eibartarren artean.

Herri-bazkaria

Partiduaren aurretik, herri-bazkaria egingo da Eibarko Bizikleta plazan (lehenago Galerasetako plaza) eta, gehienez joita, 300 lagunentzako toki izango da. Ticket-ak 10 eurotan saltzen dira Aguiñaspi, Manuel, Trinkete, Tas-Tas, O'Hays, Vivaldi, Lanús, Ceba, Caserío, Terraza, Xania eta plazan bertan kokatuko den txosnan.

Petrusek Espainiako marka berria disko jaurtiketan

PEDRO AGIRREGOMEZKORTA "PETRUS"EK ESPAINAKO MARKA BERRIA JARRI DU, URTEKO BIGARREN SAIAKERAN, M-80 (80tik 84 urtera arte) kategorian kilo bateko diskoa 31'27 metrotaraino botata. Unben zapatuan jokatutako txapelketan orain arte Jose Luis Celayak zuen marka (29'38 m.) ia bi metrotan hobetu zuen eibartarrak. Eibarko Klub Deportiboko atletak, bere burua ondo prestatzeaz gain, astean hirutan atleta gaztetxoei dakien guztia erakusten jarraitzen du.



Pedro Agirregomezkorta Inma Urkiolaren agindua jarraitzen.

Euskal Kopa Arraterentzat berriro ere

ARRATEK 30-26 IRABAZI ZION BIDASOARI GASTEIZEN HE-RENEGUN EUSKAL KOPAKO FINALEAN, Partidua hasieratik izan zuen Arratek bere esku, lau-bost goleko aldearekin, eta bertan talde baten eta bestearen artean dagoen aldea nabaritu zen. Bestalde, Julian Ruiz Arraten prestatzailearen azken partidua izan zen, datorren urtean kantabriarrak ez baitu jarraituko Arraten.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

IGOITZA NAGUSIA
Bilberriz 20 - beheko eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa labea

Egoibonak (Signo poligonoz)

Partikular, mutua eta seguru enosi zerbitzuak

Korak - Eskelak - Uteunansko sikelak

Euskal Herri osoan ospitaleen hartzes zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko iruzkiak

Mugica Errozketa
Prestakuntza labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Madrilera joandako txapeladunen Eibarko ordezkariak.

Muguruza judokak jiu-jitsuko Espainiako txapela jantzi du berriro

BERE PISUAN BIGARREN URTEZ JARRAIAN URREZKO DOMINA ESKURATUZ LAGAKO DU ATZEAN INFANTIL MAILA Nekane Muguruza Kalamuako judokak. Berarekin batera izan ziren Madrilgo Villaviciosa de Odón-en Adrian Riaño eta Julen Ramón eta hauek ere bikain jardun zuten, brontzezko domina irabaziz kadete eta infantil mailan, hurrenez-hurren.

Final-laurdenak foball-zaletuaren Kopa lehiaketan


DURANGO ETA TEKNOGRAFIK ARGI GORRIAK PIZTUTA HELDU DIRA LIGAREN AMAIERARA ETA KOPA TORNEOAREN HASIERAN bertan kaleratu dituzte. Talde biek berdindu egin zituzten euren partiduak (Durangok husna Esmorgarekin eta Teknografik bina Azkena Kalton-ekin) eta penaltietan agur esan zioten lehiaketari. Horrela, bidea asko erraztu zaio JoserAuto ligako

irabazleari Kopa ere bereganatzeko: final-zortzirenetan 3-0 irabazi diote C. Dental Ekoden-i.

Final laurdenetarako asteburuko jardunaldia horrela geratu da: bihar, Living Café Aretoren aurka (09.00etan) eta Esmorga Azkena Kaltonen kontra (10.30etan); etzi, bestalde, Tankemans - JoserAuto (09.00etan) eta Lanús EzDok - Alkideba (10.30etan) neurketak jokatu dira Unben.

Eibar Triatloi Taldeak aurpegia eman zuen Hondarribian


GAZTEENEN MAILAN ZEIN BETERANOETAN, PAPER POLITA EGIN ZUTEN EIBARKO TALDEAREN ORDEZKARIEK Hondarribiko triatloiarren 3. edizioan. Andoni López izan zen kadete mailako onena (1h15'22") eta euren mailetan bigarren postua eskuratu zuten bai



Alejandro Altunak beterano 2-an (1h16'09") eta Ane Ziaranek 23 urtetik azpikoan (1h21'41"); azken hau, gainera, maila absolutoko 4. postuan sailkatu zen. Probaren irabazleak SVCKo Jon Unanue (1h04'30") eta Eibarko duatloian nagusi izan zen Fuente Alamoko Radka Vodickova (1h12'19") izan ziren.

17. Eibarko Itzulia eta Klubaren Eguna datorren asteburuan


KLUB DEPORTIBOAK ANTOLATUTA, EIBARKO ITZULIAREN BESTE EDIZIO BAT EGINGO DA DATORREN ZAPATUAN (ekainak 4), goizeko 07.00etan irtenda Deporren lokalaren aurretik. Itzuli horrek 31 kilometro eta erdiko distantzia izango du eta bi mila metrotik gorako desnibela gainditu beharko dute parte-hartzaileek, "gutxi gorabehera zazpi ordutan egin daitekeen ibilbidean; hamarretako ere izango da, Goimendi auzoko Basetxea txabolan". Ibilbidearen pausoak honakoak izango dira: Klub Deportiboa (120 m.), Egoarbitza (730), Karabieta (561), Azkonabieta (724), Galdaramiño (669), Azurtza (560), Topinburu (590), Illordo (539), Azitain (100), Arrate (540), Azketa (709), Akondia (749), Garagoitxi (725), Kalamua (768), Ixua (546), Urko (793) eta Elorreta (470).



Biharamunean, ekainaren 5ean, Klubaren Eguna ospatu du Deporrek Arrateko zelaletan. Eguna horretarako haur eta gurasoentzako ibilaldia antolatu du mendi batzordeak, Ama Birjinaren pausoetatik egingo dena; horko irteera 09.30etan egingo dute, klubaren aurretik. Irteera batean zein bestean interesatuta daudenek izena eman dezakete Deporren bertan astelehen, eguazten eta barixakueta, 19.30etatik 20.30etara.

Roberto Gartzia duatleta munduko txapelketan izango da

XIXONEN IRAILEAN JOKATUKO DEN MUNDUKO DUATLOI TXAPELKETAN HARTUKO DU PARTE ROBERTO GARTZIA GURE HERRIKO DUATLETAK. laz 2. postua eskuratu zuen Euskal-Nafar Duatloi zirkuituan eta aurtengo denboraldian munduko



txapelketarako sailkatzea izan du helburu. Asturiasen parte hartu zuen horretarako eta baita apirilean Sorian antolatutako Espainiako txapelketan. Hilaren 8an jokaturako Eibarko Duatloian 3. postua bereganatu zuen betaranoen mailan, sprint motako Gipuzkoako duatloi txapelketa jokoan zegoen proban (duatloi mota horretan 5 km egiten dira antxixiketaren lehenik eta, bizikletaz 40 km egin ondoren, antxixiketaren beste 2'5 km eginez amaitzen dute).

Itsasoko arrantzaren lehiaketa bihar

URTEROKO ITSASOKO EGUNEKO ARRANTZAREN LEHIAKETA JOKATUKO DA BIHAR SATURRANEN, goizeko 09.00etan hasi eta eguerdiko 13.00ean amaitzeko. Hori dela-eta, Diana ehiza eta arrantza elkarteak deia egiten die parte hartzen interesatuta dauden bazkideei euren lokaletatik pasatu eta izena emateko.


Eguaztenean, ekainaren 1ean, Illunabarrian programaren barruan "Apaizac Obeto" espedizioaren berri emango duen dokumentala ikusteko aukera izango da Portalean, areto nagusian, 19.00etatik aurrera. Orio Produkzioak ekoizetxeak eta Albaola itsas kultur erakundeak egindako dokumentalak XVI. mendeko arrantzale euskaldunen bakailao eta bale arrantzaren esperientzia ia bertatik bertara bizitzeko aukera eskainiko dio ikusleari, Jon Maia bertsolariak zuzendutako ordu eta erdiko ikusentzunezkoari esker.

APAIZAC OBETO, azken balea txaluparen kondaira

Pasaiaiko Albaola itsas kultur erakundeak antolatuta, gure itsas-gizonen XVI. mendean egin ohi zituzten arrantza-espedizioak gogoan "Apaizac obeto" izenburukoa abiatu zen 2006ko udan Kanadatik, Québec-etik, zazpi lagunek osatutako tripulazioarekin: horietako sei Albaolako kideak ziren eta zazpigarrena, berriz, Aaron Benoit, Kanadako alde hartan jatorrizko nazioa zen Mi'kmaq herrikoa.

Québec-en hasi eta 700 itsas-milatik gora egin zituzten, aintzinako gure arrantzaleek egin ohi zuten moduan estalkirik gabeko ontzi txiki batean eta, XVI. mendeko baldintzetatik ahalik eta gertuen egoteko ahalginari jarraituta, Red Bayko arkeologia-aurkikuntzetan oinarrituta egindako jantziak soinean zeramatela. Quebec-en hasi eta San Lorenzo ibaiaren adarra den Saguenay ibaiaren bokaleraino jaitsi ziren; ondoren,

ibaian behera, Gaspe penintsularaino ailegatu eta, bertatik, Eskozia Berriko Eduardo Printzearen eta Cape Breton uhartetara joan ziren; handik Ternuako mendebaldeko kostako hegoaldeko muturreraino abiatu eta kostaldean gora, Belle Isle itsasarte zeharkatu eta Red Bayn (Labrador penintsula) amaitu zuten bidaia. Bertan, gainera, euskal bale-ehiztariaren museoa bisitatzeko aukera izan zuten.



41 egunetan eta 2.000 kilometroko ibilbidean espedizio kideek XVI. mendeko marinelen azalean jartzeko ahalegin berezia egin zuten, orduan sasoi urtero Ozeano Atlantikoa gurtzatu eta Mundu Berriaren iparraldeko ur arrotz eta urrunetara beharrera joaten zireneko garaiak berpiztuta. Eta abentura honetan tripulazioarekin batera beste protagonista handia izan



JON MAIA, dokumentalaren zuzendaria: "Itsas-herri handia izan arren, kulturalki ez diogu garrantzi larregi eman"

- Espedizioan kronikagile modura parte hartu ondoren, zelako bizipena izan zen zuretzat?


Abentura handi bat, hunkigarria, errepikaezina... Geografian bidaiatzeaz gain, denboran atzera bidaia ere egin genuen eta espedizioa bera fantasia modukoa izan zen.

- Horrelako esperientzia berezian hamaika kontu aipagarri egongo da, baina bereziki harritu zintuen zerbaitek daukazu gogoan?

Kanadan gure historiari buruz zenbat zekiten, agian horrek harritu ninduen gehien, gurekin konparatuta gai honekiko han daukaten kultura eta sentsibiltatea. Izan ere, munduan egon diren itsas-herri handienetakoa izan da gurea, bikingoena baino handiagoa, baina kulturalki oso garrantzi gutxi eman diogu itsasoari. Albaola elkartetik urteetan egindako beharriak esker gauzak piskat hobetzen doazela badirudi behintzat.

- Esperientzia hori gurekin partekatzen duzuela aprobetxatuta, zer ikasi beharko genuke bertatik?

Gure moduan herririk herri ibilita jendea harritu egiten dela ikusten dugu, orohar arrantzale haien atzetik zer dagoen imajinatu ere ez dute egiten, ezezaguna da Ipar Amerikako historian izan zuten eragina, hango indioek ezagutu zuten Europako lehenengo hizkuntza euskera izan zela... dokumentala ikusi ondoren gehiago jakiteko gogoaz pizten zaio askori.



zena ezin ahaztu: "Beothuk", San Joan galeoiarekin batera hondoratuta, Kanadako itsas arkeologoek Labradorreko ur hoztetan aurkitutako munduko balea txalupa zaharrenaren errepika, espedizio kideek bidaia osoan etxe izan zuten txalupa. Espedizioaren berri ematen, Jon Maia bertsolariak liburua idatzi zuen lehenengo eta, ondoren, datorren astean Portalean ikusteko aukera izango dugu film-dokumentala zuzendu.

Festa plazara eramango du Gozategi taldeak Euskal Jaian gaur 23.00etan. Trikitiari buelta eman zioten Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arrebek 90. hamarkadan eta Euskal Herritik mundu osora zabaldu dute euren musika urte hauetan. 'Nor-Nori-Nork', 'Nirekin' eta beste hainbat kanta famatu egongo dira entzungai Untzagako plazan.



ASIER GOZATEGI, musikaria:

"Musika alaia du berez euskarak"

- Euskal Jaiari musika ipiniko diozue. Nolako musika dauka euskarak?

Musika alaia daukala esango nuke nire ikuspuntutik. Euskeraz bizi gara, baina Eibarren adibidez, eta beste hainbat tokitan zortzarrez, Euskal Herri bi daude. Euskal Herrian euskerakin bizi eta euskeraren alde borrokatzen dutenak, eta euskerarik gabe bizi direnak.

- Jai giroan ibiliko zarete, beraz, gaur. Euskerak badu zerbait ospatzeko gaur egun?

Bai, badauka zerbait ospatzeko, baina ahaztu gabe. Ezin da ahaztu zenbat izerdi eta sufrimendu pasa den euskera Euskal Herrian entzun ahal izateko. Lan asko dago oraindik egiteko eta munduri erakusteko hizkuntza bat ez dagoela traba egiteko. Beste herrialde batean egongo bagina, euskera altxorra bezala izango lukete eta hemen, estatu espainiarraren menpe gaudenez, parte txarrekoa balitz bezala tratatzen dute euskera.

- 20 urte pasa dira arreba eta biok erromerietan hasi

zinenetik. Zer pentsatzen duzu denboran atzera begiratzean?

Zorabio pixka bat pertsonalki begiratuta. 20 urte pasa dira hasi ginenetik eta datorren urtera begira lan berria egiteko asmoekin gabilta: 'Gozategi 20 urte eta gero'. Horrek pixka bat beldurra eta dena ematen du. Baina konturatzen garena da abesti batzuk hainbat gauza aldarrikatzeko balio dutela, eta 1994 edo 1995ean egindako abestien mezuek gaur egun ere balio dutela. Horrek esan nahi du oraindik badagoela lana egiteko.

- Hasi zenetik aldaketa handia izan du taldeak?

Bizitzak aldaketak izaten dituen bezala, taldekideek ere aldaketa pairatu ditugu, baina gure ilusioa hasieran bezalako da.


- Nolako izango da Eibarko kontzertua?

Gozategiren disko guztietako abestiak eskainiko ditugu azken urtean atera genuen diskarekin tartekatuz. Horrela, jendeak ez ditu kanta berriak entzungo bakarrik, baizik eta ezagutzen dituen abestiak, gehien bat gainera.


Artisau eta baserritarren azoka indartsua

GIRO IZANGO DA BIHAR TORIBIO ETXEBARRIA KALEAN URTEROKO ARTISAU ETA BASERRITARREN AZOKAREKIN: goizeko 10.00etan hasita, 14.00ak arte iraungo du aipatutako azokak eta ez hori bakarrik, herri-kirolak, bertsolariak eta, bazkaldu aurretik gose direnentzat, taloen postua ere tartean izango baitira. "Euskal Jaiarekin zerikusia duten euskal artisauak" izango direla diote antolatzaileek eta, horrela, herriko 19 artisauarekin batera, kanpotik etorritako beste zazpi artista ere izango dira euren produktuak eskaintzen. Erakustaldiak ere izango dira, tartean rakurena, etxeko artilea-rena eta umeentzako tailerra. Eibart elkartearekin batera, baserritarrek ere euren produktu freskoenak gerturatuko dizkigute: "Zortzi baserritar etorriko dira azokara".

12.00etan hasiko den herrikirol jaialdian, azken urteetan egiten den moduan, gazteen



aldeko apustu garbia egin da, batez ere Eskolen Arteko V. lehiaketarekin: "Mogel Isasi, Al-datze eta Itzioko neska-mutilek jardungo dute lehian oraingoran". Aurretik, baina, gazte mailako Euskadiko txapeldunak eta txapeldunordeak erakustaldia egingo dute harrijasotzen, aizkoran Aratz Mugerza eta Julen Cañamares izango dira eta "bertsotan, Xabi Astigarraga eta Jon Mikel Mujika".



Txispita, Txisposa eta Pantxo Kalian Jolasian

GAUR ARRATSALDEAN, 17.00-ETATIK AUERRERA ETA 19.00- AK ARTE, 5-8 URTE BITARTEKO HAURREK ETA GURASOEK Untzaga plazan jolasean jarduteko aukera izango dute Txispita, Txisposa eta Pantxorekin lagun-giro eta zirko-giro ezin hobean. Hasieran zirko eskola izango da eta oreka, akrobaziak eta malabarrak lantzeko aukera izango dute bertara joaten diren zirkozale guztiak; ondoren jolasak egingo dira eta, amaieran, kalejira. Egitasmoa gartzeko Udalak, J.B. Gisasola Musika Eskolak, Klub Deportiboak eta Eibarko ikastetxeek hartu dute parte, Astixak koordinatuta.

Seigarren urtea da Kezka Dantza Taldeak, Iruñeko Duguna dantza taldearekin batera, Ezpalak jaialdia antolatzen duela: Iruñean bezperan eta Eibarren hurrengo egunean. Aurreko urteotan ezpata-dantzak, makila-dantzak, arku-dantzak, karaktere-dantzak eta dantza-jauziak eskaini eta gero, aurten bikoteko dantza solteen modalitateak erakutsiko digute. Ingalaterra, Flandes, Frantzia, Portugal, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia... eta beste hainbat tokitako dantzak jasotzeko aukera izan da.

Untzagan dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia domekan

Urte guzti hauetan, “gure dantzen eta kanpokoan artean, desberdintasunak baino, antzekotasunak nabaritu zituen ikusleak”, dio Kezka Dantza Taldeko Oier Araolazak. Bikoteko dantza soltea izango da aurtengo Ezpalak jaialdiaren ardatza, bai bihar Iruñean eta baita etzi Untzagan, eguerdiko 12.30etan hasiko den jaialdian (Urkizun 12.00etan hasiko den kalejiraren ondoren): “Transilvania, Calabria, Auvergne, Asturias, Aragoi eta Euskal Herriko taldeek beren eskualdean dantza soltean nola egiten duten erakutsiko dute, jotak, porruak, fandangoak, arin-arinak, orripekoak, trikiritxak, tarantellak, bourreak, ijito-dantzak etabar eskainiz”. Bizkaian, Araban, Gipuzkoan, Lapurdin eta Nafarroan azken bi mendeetan erromerietan indar handia izan du dantza solteak eta Duguna eta Kezkako dantzariak soltean saiatuko dira, Euskal Herriko ordezkariak osatzeko Bizkaiko jota molde zaharrak ikertu eta biltzen lan paregabea egin duen Galdakaoko Andra Mari dantzari taldearekin batera. Espainiatik iritsi omen dira dantza eredu horiek eta Iberiar Penintsula osoan hedapen handia izan dute mota honetako dantzek; horien erakusgarri, Asturias eta Aragoiko jota dantzariak izango ditugu jaialdian. Eta, Europara betiratu, Frantziako Auvergne, Italiako Calabria eta Hungariako Transilvaniatik izango ditugu bikoteko eta soltean dantza egiten duten dantzariak: bourrea, tarantella eta ijito-dantzak, gure fandango, jota eta arin-ekin aurrez aurre konparatzeko.

Araolazak dioenez, “Euskal Herrian ere bikoteko dantza sortarik erabilitakoa izan da, izan fandangoa, izan arin-arina; hemendik kanpo ere, antzerako ereduak izan dira nagusi”. Dantzan ikusle aditua izan edo ez, “edonor izan daiteke oinarri-oinarrizkoena antzemateko gauza eta Asturiaseko ‘a lo ligero’ eta gure arin-arinaren artean dauden antzekotasunei erreparatzeko gai; edo Italiako hegoaldeko dantzetako eskuen mugimenduen eta gure dantzen artekoen alde handirik ez dagoela konturatuko da”.

Jendearen parte-hartzeari begira, keinua ere egiten diote: “Behin sorta guztia ikusita eta erakustaldia amaituta, plaza ikusleari zabalduko zaio eta, begira egotetik, dantzan egitera emango da jauzia. Gozatzeko moduko eguna egin behar dugu danon artean!”, dio Kezkako ordezkariak.

Arrabots-en dantzarako musika

Domeka arratsaldean, bestalde, 17.00-etatik aurrera, erromeria izango da Untzagan bertan. Arrabots taldeak arrabotari biolina familiako instrumentoari nortasun propioa eskaintzen dio herri musikan. Arkaitz Miner-ek eta Gari Otamendik hasitako bideak jotzeko moldea eta estilo propioa eman dio arrabotarentzako errepertorioari eta, bi arrabotariekin batera, musikari eta dantzari trebatuek osatzen dute taldea, tartean Txus Aranburu (Tapia eta Leturia) teklatueta eta lñaki Otegi (Imuntzo eta Beloki) atabala eta panderoarekin; ezin ahaztu, aldi berean, Jokin Otamendi dantza-maisua, bera izango baita dantzaldiaren gidari.



Hungariako Kikerics eta Transilvaniako ijitoen dantzak.



Italiako Napoliko Rareca Antica eta La Tarantella.



Frantziako Gannat-eko La Bourrée Gannoise eta segidak.



Vezos Astures eta herrialde horretako solteko dantzak.



Iruñeko Duguna eta hegi eta ainhoarrak.



Galdakaoko Andra Mari eta Bizkaiko jota eta porrue.



Zaragozako Xinglar eta Aragoiko jotak.

laburrak

OLD SEED ZUZENEAN KARRIKAN

Astelehenean, 20.00etatik aurrera Old Seed kantautoreak kontzertua eskainiko du Karrika tabernan. Kanadako bakarlariak indie-folk doinuak eskaintzen ditu eta egunotan Euskal Herriko hainbat tokitan bere musika ezagutzera ematen dihardu. Berari eta bere musikari buruz gehiago jakin nahi baduzue, sartu www.myspace.com/oldseed helbidean.

ERAKUSKETA

Eguenean zabalduko dute Margo, Marrazki eta Zeramika udal eskolakoez ikasturte amaierako erakusketa. Hilaren 19ra arte ikusgai izango den erakusketa ohiko ordutegian zabalduko dute, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.


IKASTEN

Kurtsoa amaitu dute Ikasten elkarteak eta ikasturtea ezinhobeto amaitzeko Burgos aldera txangoa egingo dute hilaren 31n. Bestalde, ekainaren 11n Kaleetan Kantuz-eko ekitaldi berezia prestatzen dihardute, herri-bazkari eta guzti.

Biraka dantza taldekoen jaialdiak

DATORREN EGUENEAN ETA BARIKAKUAN, BIRAKA DANTZA TALDEKOEK IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIA AURKEZTUKO DUTE

Coliseo antzokian. Hiru emanaldi izango dira, eguenean bat, 20.30etan eta beste bi barixakua, 20.00etan eta 22.00etan. Aurtengo jaialdiak "Euro-dancing 2011" izenburua dauka eta Europa mailako balizko konkurtso batean dago oinarrituta. Beti-




ko moduan, ikuskizunean hainbat musika estilok egingo dute bat (pop, rock, blues, klasikoa...). Koreografia estiloetan ere hainbat estilo tartekatzen joango dira. Emanaldiak ordubete pasatzeko iraupena izango du eta sarrerak 2'5 euro balio du. Bestalde datorren ikasturterako izen ematea zabalik dago eta ekainaren 20ra arte egongo da izena emateko aukera (4 urtetik gorakoentzat).

Sanjuanetarako kartel eta pegatina irabazleak aukeratu dituzte

SANJUANAK 2011 EIBARRREN KARTEL LEHIAKETA-KO IRABAZLEAK AUKERATU DITU Leire Kareaga, Asier López de Viñaspre eta Marina Barrenak osatutako epaimahaiak. Lehenengo saria Conchita Honorato Blázquez (Mal-



grat de Mar, Bartzelona) diseinatzaileak eskuratu du, "Aupa sanjuanak" izenburuko lanarekin eta hori izango da aurtengo jaiak iragartzeko erabiliko duten irudia. Umeen artean, 11-14 urte bitarteko artean Irati Cobo Ugarteburu (12 urte) izan da irabazlea, "Globoak sanjuanetan" lanarekin eta 10 urtera arteko artean, berriz, Jone López Zurutuza (10 urte) saritu dute, "Eguna eta gaua" izeneko lanarengatik. Denera 73 lan aurkeztu dira aurtengo kartel lehiaketara, 13 helduen mailan, 19 lan 11-14 urte bitarteko en mailan eta 41, berriz, 10 ur-



retik beherako artekoan. Bestalde, San Juan jaietan alkohol larregi ez edateko antolatutako ohi den pegatina lehiaketan 28 urteko Arkaitz Mugica Agirrerren "Sano Juan, erre barik" izenburuko pegatina aukeratu dute saria emateko.

Gurasoak Berbetan Arraten egun pasa

MINTZAPRAKTIKA TALDEETAN DIHARDUTEN JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLA ETA SAN ANDRES IKASTETXEKO GURASOAK eta haien seme-alabak Arraten izan ziren egun pasa jo-




an den zapatuan. Eguraldia lagun, egun polita izan zuten. Goizean hainbat joko egin zituzten Arrateko zelaietan, eta hango mahaietan Kantabria jaietxetik ekarritako bazkaria jan eta gero ere, izan zuten ondo pasatzeko aukerarik,




gozo-eltze eta Altxorraren bila jokoekin. Ikasturtea amaitu arte jarraituko dute taldeetan elkartzen, eta datorren ikasturtean ere, herriko gainontzeko ikastetxeekin batera, aurrera egingo dute gurasoei zuzendutako mintzapraktikako taldeek.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AIMAR, gure etxeko prinzipia, 31n urte bi beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama, Endika eta famelixaren partez.




Zorionak, ADEI Zabala, atzo lehelengo urtia bete zendualako. Muxu haundi bat famelixa osuaren partez.




Zorionak, ALEX, eguaztenian urte bi egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, EDURNE Etxeberria, domekan 92 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JUNE Santos Lakunza, zortzi urte egin dozuzelako. Gure printzesari, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOSU, atzo lau urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, AMAIA Belda Zuluaga, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Patxo bat, printzesa, aitatxo, amatxo eta famelixaren partez.




Zorionak, AIMAR Calderón Azkunaga, zure bigarren urtebetetzian. Famelixaren partez.



Zorionak, IKER Arginzoniz Ricafranca, hillaren 31n 11 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta-amaren partez.



Zorionak, ADEI, atzo urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat osaba, izeba eta famelixaren partez.




Zorionak, DANEL, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKAIN, gaur zortzi urte egiten dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.


zinea Coliseoan




"En un mundo mejor"

Zuzendaria: **Susanne Bier**
Aktoreak: **Mikael Persbrandt, Trine Dyrholm, Ulrich Thomsen, William Nielsen**


27an: 22.30
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
28an: 20.30



Aupa, EKHI, lau urte bete dozuz-eta. Izartxo bat zarenez, kriston argixa emoten deskuzu



Zorionak, XABAT, gaur urte bi egiten ditte gure txikixak-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, KEPA, domekan hiru urte beteko dozuzelako. Ondo pasau eguna. Etxekuen partez.




"Carta Blanca"

Zuzendaria: **Bobby Farrelly**
Aktoreak: **Owen Wilson, Jason Sudeikis, Christina Applegate, Jenna Fischer**

27an: 22.30
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
28an: 20.30




Ongi etorri, KEPA Telleria Sarasketa, eta zorionak amatxo eta aitatxori! Bihotzez, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EGOITZ, gure tigriak honezkero hiru urte badittu-eta.




Zorionak, AITXITXA ANGEL, eta muxu bero-berua famelixa eta, batez be, Ekhi eta Paulen partez.




"Piratas del Caribe"

Zuzendaria: **Rob Marshall**
Aktoreak: **Johnny Depp, Penélope Cruz, Ian McShane, Geoffrey Rush**

27an: 22.30
28an: 16.30, 19.30, 22.30
29an: 17.00, 20.00
28an: 20.30



Zorionak, MONIKE eta UR, asteburuan bixon urtebetetzia izango dalako. Famelixaren partez.



Ongi etorri, ANE eta GAIZKA, eta zorionak aitatxo eta amatxori. Zoriontsuak izan, aitxitxamamen, birramamen eta osabaren partez.

horoskopoa

ARIES

Barre handiak egingo dituzu lagun artean. Aspaldi bizitako momentuak gogoratuko dituzue eta konturatuko zara ez zinela oso 'santua'.

TAURUS

Aukera biren artean zaude eta ez da eraza baten alde egitea. Pentsatu ondo, bata edo bestearen alde egiteko, erabakia ez baita mardula izango.

GEMINI

Gehiegi errepikatzen zara eta horretaz konturatu beharko zenuke; izan ere, batek baino gehiagok esango dizu. Zure arrazoibidea berri behar duzu!

CANCER

Kasualitatez aspaldian ikusi ez duzun lagun batekin gurutzatuko zara eta oroitzapenak etorriko zaizkizu burura. Malenkonia egunak izango dira.

LEO

Zein ongi etorri zaizun udaberria. Momentu ederra bizi duzu eta, astroek diotenaren arabera, horrela jarraituko duzu. Disfrutatu unea!

VIRGO

Asmo handiak dituzu udara begira, plan zoragarriak, baina aurretik lan egin beharko duzu horiek lortzeko. Zentratu zaitetz gaur egunekoan.

LIBRA

Maitasun kontuak zoragarriak dira, gehienetan behintzat, burukominak sortzen dituzten arren. Badakizu, beraz, joan botikara aspirina bila.

SCORPIUS

Barixakua noiz irisi zain egongo zara aste osoa. Egia esan, astelehen arazoz bete biziko duzu, baina ez da hainbestearinokoa izango.

SAGITTARIUS

Aste benetan lasaia zure aurrean daukazuna. Hori bai, asteburua latza izango da: ondo pasatuta ere, traila larregi izango da gorputzarendako.

CAPRICORNIUS

Zure baloreak sendoak dira eta muturreraino defendatuko dituzu. Argi erakutsiko duzu hori hurrengo egunotan. Zurean tinko beti!

AQUARIUS

Edozein ahalegin egitea kostatzen zaizu, baita txikiena ere. Gero besteek laguntzea nahi izango duzu: bizitza ez da oparia, kamarada!

PISCIS

Jaten duzun horrekin kontu gehiago izan behar duzu. Pixkat sanoago elikatu beharko zenuke eta litxarrikeriak albo batera laga.

Barixakua 27

EUSKAL JAIA

17.00/19.00.- Kalian Jolasian: Umeentzako eta gurasoendako tailerrak eta jolasak, pertsonaia bereziekin. Zirko tailerrak eta, ondoren, jolasak. Untzagan.

23.00.- Kontzertua: Gozategi. Untzagan.

Zapatua 28

EUSKAL JAIA

10.00/14.00.- Artisanu eta baserriarren azoka. Erakustaldia eta artisauak. Rakú zeramika eskola.

12.00.- Herri kirolak eta bertsolariak.

13.00.- Eskolen arteko V. herri-kirol lehiaketa. AEK-ko talopostua. Toribio Etxebarria kalean.

18.30.- Bertso triki herri parranda, Hankamotxak bertso-eskola eta Eibarko trikitilarien eskutik.

22.00.- Kantu-afaria.

23.00.- Erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Untzagako karpan.

TRIKIFESTA

13.00.- Eibar taldea animatzeko trikifesta. Guridin elkartu eta gero herri-bazkaria.

7	3	1	6	2	4	8	5	9
8	4	9	8	1	5	3	7	2
8	5	2	9	9	7	1	4	6
2	8	7	9	9	1	4	8	5
3	6	4	2	5	6	9	1	7
1	9	5	4	7	0	6	2	3
5	1	8	7	6	9	2	0	4
9	7	3	1	4	2	6	6	8
4	2	6	5	8	3	7	9	1

DENBORAPASAK

6					3	1	
	2	5					
3			9		8		
	5	8		1			
		6	5		7	1	
				2	5	7	
		3			2		4
						7	3
	1	9					8

Domeka 29

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

08.30.- Argazki rallya (izen-ematea 09.30ak arte). Irteera Klub Deportibotik.

EUSKAL JAIA

12.00.- Euskal Jaiko kalejira: Ezpalak jaialdiko talde guztiak, gaiteroak, joaldunak eta Eibarko J.B. Gisasola Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak. Urkizutik Untzagara.

12.30.- Ezpalak, bikotekako dantza solte nazioarteko jaialdia. Euskal Herriko eta atzerriko dantza erakustaldia. Untzagan.

14.30.- Herri bazkaria. Untzagako karpan.

17.00.- Erromeria: Arrabots taldea.

19.00.- Larrain-dantza. Untzagan.

20.00.- Larrain-dantza. Deportibo barean.

Astelehena 30

ANTZERKIA

15.00.- La Salle Isasi ikastetxearen antzezkiak. Debabarreneko Eskolarteko XXVII. Antzerki Erakusketaren barruan Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA

20.00.- Old Seed kantautorearen kontzertua. Karrika tabernan.

AURREKOAREN EMAITZA

sudoku

Martitzena 31

ANTZERKIA

15.00.- La Salle Isasi ikastetxearen antzezkiak. Debabarreneko Eskolarteko XXVII. Antzerki Erakusketaren barruan Hezkuntza Esparruan.

20.30.- "Quién teme a Virginia Woolf?" (Txaika Teatro, Bizkaia). Debabarreneko Eskolarteko XXVII. Antzerki Erakusketaren barruan. Coliseoan.

Eguaztena 1

IKUS-ENTZUNEZKOA

19.00.- "Apaizac obeto" dokumentalaren proiektzioa, Portalean.

DANBORRADA

19.00.- Sanjuanetako umeen danborradarako entsegua (helduena 20.00etan hasiko da). Beistegi eraikinean (B. Sarasketa kalean).

ANTZERKIA

20.30.- "... Y lloverá?" (Banarte Antzerki Taldea, Bizkaia). Debabarreneko Eskolarteko XXVII. Antzerki Erakusketaren barruan. Coliseoan.

Eguena 2

DANBORRADA

19.00.- Amañako jaietarako, umeen danborradarako entsegua (helduena 20.00etan hasiko da). Amañako herri ikastetxean.

INAUGURAZIOA

19.00.- Margo, Marrazki eta Zeramika udal eskolen erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

LIBURU AURKEZPENA

19.30.- "Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak". Parte-hartzaileak: Eva García Magriñá (egilea) eta Jon Unanue, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria. Portalean.

DANTZA

19.00.- Biraka Dantza Taldearen emanaldia. 2'5 euro. Coliseoan.



erakusketak

– Maiatzaren 29ra arte

GERVASIO SANCHEZ-en "Vidas minadas", **M^a GRACIA DE LA HOZ** (Ojanguren 2010) Lehiaketako Ohorezko Saria) eta **JOSEBA IBARRA** (CEF 2010 Argazkilaritza Sari Nazionala) argazki erakusketak. *Portalean*.

– Maiatzaren 31ra arte

WENTONG WANG ETA FENG XIAOHUI argazkilarien lanak. *Untzagako jubilatuen etxean*.
30 ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Klub Deportiboan.
DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAren erakusketak kolektiboa. *El Ambigú eta Portalea tabernetan*.

ARGAZKI LEHIAKETAko lanen erakusketak. *El Corte Inglés-eko erakusketak aretoan*.

– Ekainaren 2tik 19ra arte

MARGO, MARRAZKI ETA ZERAMIKA udal eskolen erakusketak. *Portalean*.

farmaziak

27, barixakua

EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
 GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

28, zapatua

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
 GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

29, domeka

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

30, astelehena

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
 GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

31, martitzena

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
 GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

1, eguaztena

EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
 GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

2, eguena

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

3, barixakua

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

ikastaroak

– "Autocuidado: cuidarse para cuidar".

Noiz eta non: Ekainak 6, 7, 8, 9 eta 10, 15.00etatik 17.00etara Portalean. Izen-ematea: Pegoran.

– UEUko udako ikastaroak.

Noiz eta non: Ekainaren 27tik uztailearen 1era eta uztailearen 11tik 15era (Eibarren), uztailearen 4tik 6ra (Baionan) eta uztailearen 18tik 20ra (Iruñean). Informazioa: www.ueu.org / 943821426.

bekak

– Juan San Martin ikerketa beka.

Gaia: Mendizaletasuna. Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran edo www.eibar.net helbidean. Irailaren 1etik urriaren 15era arte.

diru-laguntzak

– Euskara ikasteko.

Norentzat: 12 urte arteko seme-alaben guraso edo tutoreentzat, merkatariantzat, ostalarientzat, euskera plana duten enpresetako beharinentzat, 65 urte edo gehiagoko jubilatuentzat. Eskararak: Abuztuaren 31a baino lehen, Pegoran.

txosnak

Eskararak: Ekainaren 6ra arte (14.00ak arte), Pegoran. Bilera ekainaren 8an, 12.30etan udaletxean.

telefono jakingarriak

SOS deliak112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea943 70 07 99
 Debegesa.....943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola901 20 20 20
 Naturgas902 12 34 56
 DYA Larrialdiak.943 46 46 22
 Gurutze Gorria..943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekuia943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren902 54 32 10
 Pesa902 10 12 10
 Taxiak.....943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
 Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR**. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR**. Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR**. Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Mendaroko erdialdean. 80 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira. 126.000 euro. Deitu astelehenerik barixakura. Tel. 943-700690.
- Pisia salgai Juan Antonio Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Tel. 610-603631.
- Pisia salgai Armagin kalean, Txal-txa-Zelai ondoan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziagaria. Tel. 675-700864.

1.2. Errentan

- Logela alokagai. Etxetik independentea, intimitate osoarekin. Komuna dutzarekin, mikrouhinak eta hozkailua. Garaje plaza aukeran. Tel. 635-731831.
- Pisia alokatzen da Ermuan. Logela bi. Igogailua. Tel. 661-653160.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Logela bikoa. 400 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 672-693035 eta 649-313548.
- Gaztea behar da pisua konpartitzeko Eibarren. Tel. 656-734810 (Alazne) eta 650-771995 (Jone).
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Tel. 693-950032.
- Pisia alokagai Torrebiejan uda parterako. Hondartzat minutu bira. 2 logela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Tel. 943-201077.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Amaña 14an. Tel. 635-719595.

3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.
- Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzako sarre-ronarekin. Tel. 605-771570.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- 45 urteko emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 605-862219.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna, externa edo orduka. Tel. 663-682150.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 651-836353.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 674-716699.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.
- Produktoriarako tekniko eskaintzen da lantegia eramateko, ISO9001 jartzeko eta kontabilitatea eramateko. 21 urteko esperientzia. Tel. 638-925415.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 695-182457.
- Gizonezkoa eskaintzen da harakin edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak pasiatzeko. Tel. 686-274490.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 620-853295.
- Neska arduratsua eskaintzen da astegunetan arratsaldez eta asteburuetan edozein lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta gaez laguntzeko. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da 13.00etik 16.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 678-972690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 669-068439.
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-778554.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da zapatu, domeka eta jaiegunetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 645-651309.
- Neska eskaintzen da arratsaldez garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-691964.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 685-761979.
- Klimatizazio, iturgintza eta elektrizitate teknika eskaintzen da lan egiteko. Tel. 669-034991.
- Gizarte Hezkuntza ikasketak egiten diharduen guraso euskaldunak umeak zaintzeko lituzke. Tel. 676-392055.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 673-875123.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta gozogile moduan. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Gizona eskaintzen da txofer jarduteko edo baserrian lan egiteko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-068463.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-935379.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da asteburuetarako Soraluzen. Tel. 670-541347.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 685-738435. Aitor.
- Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.
- Emakumea behar da eguerdian etxeko lanak egiteko. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 600-377367 eta 943-200020.
- Odontologoa eta klinika-laguntzaile behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Beharrezkoa esperientzia izatea. Tel. 943-700082.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Baserriar traja salgai. Estreinatua gabe eta abarketekin. Neskatilaren 5 tailakoa. 90 euro. Tel. 696-367250.
- Plegatzeko aulki-makila salgai, Chicco markakoa. Autoko segurtasun aulkia (9-25 kilo) eta egurrezko tronarekin. la berria. Tel. 617-256466.
- Binilozko diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Ohe artikulatua salgai. la berria. Tel. 666-062285.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Cimarron markako txamarra bake-roa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 626-887589.


6.4. Bestelakoak

- Barixaku ekainaren 3an 20.00-etan Coliseoan egingo den dantza-funtziarako sarrera bat behar dut. Tel. 943-200898 eta 645-720594. Arrate.
- Umeak bizikletan eramateko aulkitoxa behar dut. Tel. 646-293311. Alberto.

Bigarren Hezkuntzako
Institutua
A eta D ereduak

AURREMATRIKULA

Zikloak:
Ekainaren 1etik 10era



EIBAR-ERMUA
ICS-DHI

OHARRA: AURDA ZIB. ARRO-ERMUA (EIBARRA) 943 17 42 51

Batzilergia
BATXILERGIA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
GIZA ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

Go. Mailako Prestakuntza Zikloak
GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
NAZIOARTeko MERKATARITZA
AKTIBITATE FISIKO ETA KIROL ANIMAZIOA
SISTEMA INFORMATIKO ETA SAREEN ADMINISTRAZIOA
PLATAFORMA ANITZeko APLIKAZIEN BARAFENA
WEB APLIKAZIEN BARAFENA

Erdi Mailako Prestakuntza Zikloak
ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MIKROINFORMATIKAK ETA SAREAK
MERKATARITZA

Arantza Gabeko Heziketa
ARANTU GABEKO HEZIKETA

HEZIKETA JARRAITZA
ZEREBINTAKO HEZIKETA
ESKANTZA PARTZIALA

OHARRA: HIRIBIDEA, 25, 20600 EIBAR (GIPUZKOA) 943 20 34 44

WWW.EIBAR.DHI.COM

UNIBESUMIEN.COM

INDARRA zure etorkizunarentzat



- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-
INFORMATIKA

Ate irekiak: Ekainaren 2an

Izenematea: Ekainaren 1etik 10era

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44 - e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com

ALFA[®]

